

» KONTZERTUA

Asmo onak



Montserrat Auzmendi del Solar

Urte batzuk dira Opus Lirica elkarteak Donostian opera-denboraldi egonkor bat ezarri nahian ari dela. Pausoz pauso, espektakulu desberdinak antolatzen ari da elkarteak, eta benetan operaren beharra sortzen den hirian. Joan den martxoan Pucciniren *La Bohème* interesgarri bat eskaini zuten, eta oraingo honetan, hain ederra den Christoph Willibald Glucken *Orphée et Eurydice*-ren txanda izan da.

Benetan txalogarria da talde honen ahalegina, kontuan harturik honetarako diru-laguntza eskasa dutela. Baina, tamalez, diru-eskasia hori nahiko nabarmena izan da aldi honetan. Opera, berez, ikuskizun garestia da, oso garestia. Hain ikusgarria den espektakulu honek baliabide izugarriak behar ditu: orkestra, korua, bakarlariak, attrezzo-a, argiztapena, eszenografia... Eta, sukaldaritzan gertatzen den bezala, osagaiak primerakoak izan behar dira. Bestalde, ikuskizun hain konplexua denez, edo mirezgarria da edo penagarria. Horrelako saiakerentzat ez dago tarte handirik.

Ez dut esan nahi *Orphée et Eurydice* hau erabateko porrota izan zenik, baina igandekoa ikusita, ez doazela bide onetik esango nuke. Eszenaratze diseinuarekin hasiko naiz. Marta Eguiliorrek zerbait ausarta baina dotorea egin nahi izan du, eta, zoritxarrez, ez bata ez bestea. Berak esaten duen bezala, leku ilunak hartzea erabaki zuen, japoniar Butoh estetikatik eta espresionismo alemaniarretik hurbil. Ideia ona da, eta ziur nago Eguilior andreak, baliabide gehiagorekin buruan duen irudia lortuko zuela. Baina sado-maso ukitu simple batean geratu zen. Eta ez bereziki elegantea.

Gluck-en *Orphée et Eurydice* opera

Opus Lirica Orkestra.
Zuzendaria: Lara Diloy.
DOZE Abesbatza.
Zuzendaria: Jagoba Fadrique.
Eszena zuzendaritza:
Marta Eguilior.
Bakarlariak: Matteo Mezzaro,
Ainhoa Garmendia
eta Alicia Amo.
Donostiako
Victoria Eugenia Antzokia.
Ekainaren 3a.

rekin buruan duen irudia lortuko zuela. Baina sado-maso ukitu simple batean geratu zen. Eta ez bereziki elegantea.

Musikarekin jarraitzen badugu, Opus Lirica Orkestra, Lara Diloyren batutapean, zatar-ki aritu zen. Kostata lortu zuten koruarekin behar den koordinazioa. DOZE abesbatzak, bestalde, lan gehiago egin behar du fintasuna lortzeko.

Agian okerrera Matteo Mezzaro tenorea izan zen. *Orphée*-ren rola handia geratu zen berarentzat. Ahots boteretsua du, hori egia da. Baina Ferrari kotxeekin bezala, horrelako makina ondo erabili behar da. Ahots kontrola falta zitzaion. Benetan larri ibili zen, bai agudoetan, bai koloratuetan.

Hori bai, Ainhoa Garmendiak *Eurydice* zoragarria egin zuen, ondo-ondo abestuta eta interpretatuta. Eta Alicia Amo-k *Amour*-en rolean ahots garbi eta distiratsua erakutsi zuen. ■



Christoph Willibald Gluck
alemaniar musikaria
(Erasbach, Alemania, 1714
– Viena, Austria, 1787)